1. Eskaera arrazoituztat jotzen da prozedura hasteko proposamen bat, hura hasteko eskumenik ez duen edozein administrazio-organok egina prozeduraren xede diren inguruabar, jokaera edo egitateen berri izan duelarik, bai halabeharrez edo bai ikuskatze-azterketa- edo ikerketa-eginkizunak esleituak dituelako.

2. Beste organo batek eskaera arrazoitua egiten duenean, arau-hauste izan daitezkeen egitateen kontaketa egin beharko du, eta xehetasun hauek adierazi beharko ditu: tipifikazioa, noiz gertatu ziren –eguna, egunak edo denbora jarraitua–, eta, ahal izanez gero, ustezko erantzuleen identifikazioa.

Organo eskatzaileak eskaeraren xedeari buruz bere esku dauzkan dokumentuak eta frogak aurkeztu beharko ditu, eskaera arrazoituarekin batera.

3. Eskaera arrazoitu bat egiteak ez du prozedura hastera behartzen zehatzeko ahala duen organoa, baina eskaera egin dion organoari komunikatu behar dio prozedura hastea erabaki duen ala ez; ez hastea erabakitzen badu, horren arrazoiak adierazi beharko dizkio.

4. Salaketak berak, besterik gabe, ez du bihurtzen salatzailea interesdun zehapen-prozeduran. Salatzaileak prozeduran izango duen partaidetza bakarra izango da zehapen-prozedura abiatzeari edo ez abiatzeari buruzko jakinarazpena jasotzeko eskubidea duela, eta, hala badagokio, hari amaiera ematen dion ebazpenaren ingurukoa jasotzekoa, non eta ez dagoen legitimatuta lege honen 30. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta prozedura abiatzea eskatzen ez duen.”

**Hogeita zazpigarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legeari 34 quinquies artikulua berria gehitzea.

34 quinquies artikulua berri bat gehitzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeari. Honela dio:

“34 quinquies artikulua.- Ofizioz hastea, salaketa baten ondorioz.

1. Salaketa da egintza bat, zeinaren

1. Se entiende por petición razonada, la propuesta de iniciación del procedimiento formulada por cualquier órgano administrativo que no tiene competencia para iniciar el mismo y que ha tenido conocimiento de las circunstancias, conductas o hechos objeto del procedimiento, bien ocasionalmente o bien por tener atribuidas funciones de inspección, averiguación o investigación.

2. La petición razonada de otros órganos deberá contener el relato de los hechos que pudieran constituir infracción, su tipificación, la fecha, fechas o período de tiempo continuado en que se produjeron, y, si fuera posible, la identificación de los presuntos responsables. Con la petición razonada deberán aportarse los documentos y pruebas relativos al objeto de la misma que obren en poder del órgano peticionario.

3. La formulación de una petición razonada no vincula al órgano titular de la facultad sancionadora, si bien deberá comunicar al órgano que la hubiera formulado la decisión sobre la apertura o no del procedimiento y los motivos por los que, en su caso, no procede la iniciación.

4. La denuncia no convierte, por sí sola, al denunciante en interesado en el procedimiento sancionador. El denunciante, salvo que tenga legitimación en los términos establecidos en el artículo 30 de la presente ley y solicite la apertura del procedimiento, no tendrá más participación en el procedimiento que el derecho a recibir comunicación del órgano competente sobre la apertura o no de aquél y, en su caso, de la resolución que le ponga fin.”

**Artículo vigésimo séptimo.-** Adición de un nuevo artículo 34 quinquies en la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se introduce un nuevo artículo 34 quinquies en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el siguiente tenor:

“Artículo 34 quinquies.- Iniciación de oficio por denuncia.



bidez edozein pertsonak, legezko betebeharrak batez besteko, administrazio-organotara bati jakinarazten baitio badela egitate bat administrazio-prozedura bat ofizioz hastea justifikatu lezakeena.

2. Salaketan, adierazi behar da nor den edo diren hura aurkezten duten pertsonak, eta adierazi behar da zer egitate berri ematen zaion Administrazioari. Egitate horiek arau-hauste administratibo izan badaitezke, salaketan adierazi behar da noiz gertatu diren eta, ahal denean, ustezko erantzuleak nor diren, zein arautan dauden tipifikatuta egitateak, egokitzen diren zehapen edo zehapenak eta zein arautan dauden jasota zehapenak.

3. Salaketak administrazio publikoaren ondarearen kalte bat argudiatzen duenean, prozedura ez hastea arazoitu egin behar da, eta salatzaileei jakinarazi behar da beti prozedura hasteko edo ez hasteko erabakia.

4. Salatzaileak parte hartu badu halako arau-hauste batean eta beste arau-haustea batzuk baldin badira, prozedura ebazteko eskumena duen organoak salbuetsi egin behar du salatzailea legokiokeen isuna ordaintzetik edo diruzkoa ez den beste zehapenen batetik, bera baldin bada prozedura hasteko edo arau-haustea egiaztatzeko frogaren elementuak ekartzen dituen lehena, betiere elementu horien berri emateko unean ez bada daturik aski zehapen hori agintzeko eta egindako kaltea erreparatzen bada.

Halaber, ebazteko eskumena duen organoak gutxitu egin behar du legokiokeen isunaren zenbatekoa edo, hala badagokio, diruzkoa ez den zehapena, baldin eta, aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez delarik, salatzaileak frogaren elementu batzuk aurkezten baditu lehendik daudenen aldean balio erantsi adierazgarria dutenak.

Bi kasuetan, beharrezkoa da salatzaileak arau-haustean parte hartzei utzi izana eta salaketaren xedearekin lotutako frogaren elementurik ez desegin izana.

5. Salaketa bat aurkezteak ez du inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen prozeduran. Salaketa lege honen 30. artikulua araberak interesdun den batek jartzen badu, artikulua honetan

1. Se entiende por denuncia, el acto por el que cualquier persona, en cumplimiento o no de una obligación legal, pone en conocimiento de un órgano administrativo la existencia de un determinado hecho que pudiera justificar la iniciación de oficio de un procedimiento administrativo.

2. Las denuncias deberán expresar la identidad de la persona o personas que las presentan y el relato de los hechos que se ponen en conocimiento de la Administración. Cuando dichos hechos pudieran constituir una infracción administrativa, recogerán la fecha de su comisión y, cuando sea posible, la identificación de los presuntos responsables, los preceptos en que se encuentren tipificados los hechos, la sanción o sanciones que correspondan y los preceptos en que se encuentran recogidas.

3. Cuando la denuncia invocara un perjuicio en el patrimonio de las Administraciones Públicas la no iniciación del procedimiento deberá ser motivada y se notificará a los denunciantes la decisión de si se ha iniciado o no el procedimiento.

4. Cuando el denunciante haya participado en la comisión de una infracción de esta naturaleza y existan otros infractores, el órgano competente para resolver el procedimiento deberá eximir al denunciante del pago de la multa que le correspondería u otro tipo de sanción de carácter no pecuniario, cuando sea el primero en aportar elementos de prueba que permitan iniciar el procedimiento o comprobar la infracción, siempre y cuando en el momento de aportarse aquellos no se disponga de elementos suficientes para ordenar la misma y se repare el perjuicio causado. Asimismo, el órgano competente para resolver deberá reducir el importe del pago de la multa que le correspondería o, en su caso, la sanción de carácter no pecuniario, cuando no cumpliéndose alguna de las condiciones anteriores, el denunciante facilite elementos de prueba que aporten un valor añadido significativo respecto de aquellos de los que se disponga. En ambos casos será necesario que el denunciante cese en la participación de la infracción y no haya destruido elementos de prueba relacionados con el objeto de la denuncia.

5. La presentación de una denuncia no confiere, por sí sola, la condición de interesado en el procedimiento. Cuando la





*aurreikusitakoaz gain, hurrengo artikuluko arauak aplikatuko dira.”*

**Hogeita zortzigarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 35. (alderdietako baten eskaeraz hastea) atalaren erredakzio berria.

Erredakzio berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 35. atalari, eta honela idatzita geratzen da:

*“35. artikulua.- Alderdietako baten eskaeraz hastea.*

*1. Zehapen-prozedurak lege honen 30. artikuluaaren arabera interesdun den alderdi batek eskatuta ere has daitezke, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraituz ezarritako salaketa baten bidez. Zehapen-prozedura bat hasteko eskaerak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.1 artikuluan edo gerora hori ordeztuko duen arauan eskatutakoak bete behar ditu, eta, horretaz gain, arrazoitua izan behar du, eta, aurreko artikuluko 2. apartatuan dagokion salaketa jartzeko eskatutako alderdiak jaso behar ditu, hargatik eragotzi gabe alderdi horiek aldatzeko aukera egotea alderdi interesdunak gerora prozeduran zehar egingo dituen alegazioetan.*

*Eskatzaileak, eskaera horrekin batera, interesduna dela eta zer lortu nahi duen justifikatzeko dokumentuak, tresnak eta frogak aurkeztu ahal izango ditu.*

*2. Aurreko puntuan aipatutako eskaera eta eskaerarekin batera aurkeztutako gainerako guztia igorri egingo zaie bertan ustezko erantzulezat jotzen diren pertsoneri, egoki irizten diotena alegatu ahal izan dezaten hamar eguneko epe komunean.*

*Alegazio-epe berbera izango da prozedura irekitzeko eskaeran aldaketak sartzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan edo gerora hori ordeztuko duen arauan xedatzen den zuzentze-*

*denuncia la interponga una persona interesada según el artículo 30 de la presente ley, serán de aplicación, junto con lo previsto en este artículo, las normas del artículo siguiente.”*

**Artículo vigésimo octavo.-** Nueva redacción del artículo 35 (iniciación a instancia de parte) de la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se da nueva redacción al artículo 35 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado con el siguiente tenor:

*“Artículo 35.- Iniciación a instancia de parte.*

*1. Los procedimientos sancionadores también podrán iniciarse a instancia de parte interesada según el artículo 30 de la presente ley, mediante la correspondiente denuncia interpuesta conforme a lo previsto en el artículo anterior. Además de lo requerido en el artículo 66.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la norma que en el futuro lo sustituya, la solicitud de apertura de un procedimiento sancionador será motivada y deberá contener aquellos extremos exigidos por el apartado 2 del artículo anterior para la interposición de la correspondiente denuncia, sin perjuicio de la posibilidad de modificar dichos extremos en las alegaciones posteriores que la parte interesada haga durante el procedimiento. Con dicha solicitud podrán aportarse todos los documentos, instrumentos o pruebas en que el solicitante funde su condición de interesado y su pretensión.*

*2. De la solicitud referida en el punto precedente y de lo que con la misma se aporte se dará traslado a las personas que aparezcan en ella como presuntos responsables, a fin de que en el plazo común de diez días aleguen lo que a su derecho convenga. Igual plazo de alegaciones se dará respecto de las variaciones que se introduzcan en la solicitud de apertura del procedimiento en ejercicio de la facultad de subsanación prevista en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la*



ahalmena baliatuz.

3. Aurreko puntuan adierazten diren alegazioak jaso edo horretarako epea pasa ondoren, ebazteko eskumena duen organoak prozedura hasteko eskaera onargarria den ala ez erabakiko du.

4. Ez da eskaera onartuko kasu hauetan:

a) Artikulu honetako 1. zenbakian eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikuluan edo gerora hori ordeztuko duen arauan ezarritako xehetasunak behar bezain argi adierazi ez direnean eta aipatu legearen 68. artikuluan edo gerora hori ordeztuko duen arauan ezarritako epea akats hori zuzendu gabe pasa denean.

b) Argi eta garbi ikusten denean oinarririk gabekoa dela.

Onarpenik eza arrazoi honetan oinarritzeko, kontuan hartuko da, bereziki, eskaeran egindako arrazoibidea eta eskaerarekin batera aurkeztutako frogan laguntza.

Onarpenik eza arrazoi horretan oinarritzen denean, ezin izango da aurreko letran azaltzen den zuzenketa gauzatu.

c) Interesdun ez denak aurkezten duenean.

Ezingo dira zuzendu eskaeran alde horri buruzko arrazoibidean dauden akatsak eta gabeziak.

5. Organo eskudunari prozedura hasteko eskaera onartezina iruditzen bazaio, hala adieraziko du ebazpen arrazoitu batean. Aitzitik, eskaera onargarria dela iruditzen bazaio, prozedura hasteko erabakia emango du, ofiziozko eskaera bat izango balitz bezala.”

**Hogeita bederatzigarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legeari 35 bis artikulua berria gehitzea.

35 bis artikulua berri bat gehitzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeari. Honela dio:

“35 bis artikulua.- Aurrez ebazpen zehatzaile bat emanda egoteko eskakizuna, arau-hausteak jarraitzen

norma que en el futuro lo sustituya.

3. Recibidas las alegaciones a que se refiere el punto antecedente o pasado el plazo al efecto señalado, el órgano competente para resolver decidirá sobre la admisibilidad de la solicitud de apertura del procedimiento.

4. Se inadmitirá tal solicitud cuando:

a) No contenga con la claridad necesaria los extremos señalados en el punto 1 precedente y en el artículo 66 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la norma que en el futuro lo sustituya y haya pasado el plazo establecido en el artículo 68 de dicha ley o en la norma que en el futuro lo sustituya sin que la subsanación se haya producido.

b) Carezca notoriamente de fundamento. Para apreciar esta causa de inadmisión se tendrá en cuenta, fundamentalmente, la argumentación de la solicitud y el apoyo probatorio que con ella se aporte. Respecto de esta causa de inadmisión no se dará la posibilidad de subsanación contemplada en la letra precedente.

c) Se presente por quien no es interesado. No serán subsanables los defectos o carencias que en la fundamentación de este aspecto presente la solicitud.

5. Si el órgano competente entendiera inadmisibile la solicitud de apertura así lo expresará en resolución motivada. Si, por el contrario, estimara que tal solicitud es admisible procederá a dictar el acuerdo de iniciación, como si de una solicitud de oficio se tratase.”

**Artículo vigésimo noveno.-** Adición de un nuevo artículo 35 bis en la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se introduce un nuevo artículo 35 bis en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el siguiente tenor:

“Artículo 35 bis.- Exigencia de la resolución sancionadora previa en caso de persistencia en la infracción.



badu.

*Ezin da zehapen-prozedura berririk hasi arau-hausleak behin eta berriz egiten dituen eta arau-hauste gisa tipifikatuta dauden egitate eta jokaerengatik, artean ez bada eman lehenbiziko ebazpen zehatzaile bat, betearazpen-indarrekoa.”*

**Hogeita hamargarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 36. (jardunbidea hasteko erabakia) atalaren erredakzio berria.

Erredakzio berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 36. atalari, eta honela idatzita geratzen da:

*“36. artikulua.- Prozedura hasteko erabakia.*

*1. Prozedura hasteko erabakiak honako eduki hau izango du gutxienez:*

*a) Nor den edo diren ustezko erantzule.*

*b) Zer egitatek eragin duten prozedura hastea, zer kalifikazio juridiko izan lezaketen eta zer zehapen legozkiekeen, hargatik eragotzi gabe instrukzioetik ondorioztatzen dena.*

*c) Nor den prozeduraren instrukzio-egilea, espresuki adierazirik haren errekusazio-araubidea.*

*d) Zer organo den prozedura ebazteko eskudun, eta zer arauk esleitzen dion eskumen hori. Adierazi behar da ustezko erantzuleak baduela aukera borondatez bere erantzukizuna aitortzeko, 46. artikuluan aurreikusitako ondorioekin. Orobat jasoko da, hala badagokio, zehapen-espeditentari amaiera emateko aukera, adingabearen eta biktimaren edo Administrazioaren arteko adiskidetzearen ondorioz, 8 bis artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*e) Zehapen-prozedura hasteko eskumena duen organoak erabakitako behin-behineko neurriak, eta, halaber, zehapen-prozeduran zehar 31. artikuluari jarraikiz har daitezkeenak, baita 32. artikuluan ezarritakoari jarraikiz salbuespenez hartutako neurrien errebokatze, mantentze edo aldaketan ingurukoak ere.*

*f) Adieraziko da alegazioak egiteko*

*No se podrán iniciar nuevos procedimientos de carácter sancionador por hechos o conductas tipificadas como infracciones en cuya comisión el infractor persista de forma continuada, en tanto no haya recaído una primera resolución sancionadora, con carácter ejecutivo.”*

**Artículo trigésimo.-** Nueva redacción del artículo 36 (acuerdo de iniciación) de la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se da nueva redacción al artículo 36 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado con el siguiente tenor:

*“Artículo 36.- Acuerdo de iniciación.*

*1. El acuerdo de iniciación tendrá el contenido mínimo siguiente:*

*a) Identificación de la persona o personas presuntamente responsables.*

*b) Los hechos que motivan la incoación del procedimiento, su posible calificación jurídica y las sanciones que pudieran corresponder, sin perjuicio de lo que resulte de la instrucción.*

*c) El instructor del procedimiento, con expresa indicación del régimen de recusación del mismo.*

*d) El órgano competente para la resolución del procedimiento y norma que le atribuya la competencia, indicando la posibilidad de que el presunto responsable pueda reconocer voluntariamente su responsabilidad, con los efectos previstos en el artículo 46. También se consignará, en su caso, la posibilidad de terminación del expediente sancionador por conciliación o reparación entre el menor y la víctima o la Administración, de conformidad con lo previsto en el artículo 8 bis.*

*e) Medidas de carácter provisional que se hayan acordado por el órgano competente para iniciar el procedimiento sancionador, sin perjuicio de las que se puedan adoptar durante el mismo de conformidad con el artículo 31, así como lo que corresponda en relación con la revocación, mantenimiento o modificación de las medidas que se hubieran adoptado excepcionalmente de acuerdo con lo previsto en el artículo 32.*

*f) Indicación del derecho a formular alegaciones y a la audiencia en el*



eskubidea eta prozeduran entzuna izateko eskubidea badela, eta haiek baliatzeko zer epe dauden; orobat ohartaraziko da ezen, prozedura hasteko erabakiaren edukiaz aurreikusitako epean alegaziorik egin ezean, erabaki hori ebazpen-proposamentzat hartu ahal izango dela inputatutako erantzukizunari buruzko irizpen zehatz bat duenean.

2. Prozedura hasteko erabakiaren berri emango zaio instruktoreari, eta erruztatuari eta gainerako interesdunei ere jakinaraziko zaie; interesdunei aditzera emango zaie, halaber, hamabost eguneko epea dutela egokitzen jotzen dituzten alegazioak, dokumentuak edo informazioak aurkezteko, frogaldia irekitzea eskatzeko eta egokitzen jotzen dituzten frogabideak proposatzeko.

Hasteko erabakiarekin batera, prozedura irekitzeko eskaera, salaketa edo eskaera arrazoitua bidaliko dira, baita horiei erantsi zaizkien edo zehapen-eskumenaren organo titularrak prozedura irekitzeko kontuan hartu dituen dokumentuak eta frogak ere.”

**Hogeita hamaikagarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legeari 36 bis artikulua berria gehitzea.

36 bis artikulua berri bat gehitzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeari. Honela dio:

“36 bis artikulua. Instrukzio-egintzak.

1. Ebazpena eman beharra eragin duten egitateak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko behar diren instrukzio-egintzak ofizios eta bitarteko elektronikoz egingo ditu prozedura izapidetzen ari den organoak. Interesdunek eskubidea dute, nolana ere, beren esku-hartzea eskatzen duten edo legez edo erregelamenduz ezarritako izapidetza diren jarduketak proposatzeko.

2. Prozeduren instrukzioa egiteko erabilitako aplikazioek eta informazio-sistemek bermatu behar dute denbora eta epeen kontrola, erantzule diren organoen identifikazioa eta espedienteak modu ordenatuan izapidetzea, eta erraztasunak eman behar dituzte prozedurak sinplifikatzeko eta publiko egiteko.

procedimiento y de los plazos para su ejercicio, así como indicación de que, en caso de no efectuar alegaciones en el plazo previsto sobre el contenido del acuerdo de iniciación, éste podrá ser considerado propuesta de resolución cuando contenga un pronunciamiento preciso acerca de la responsabilidad imputada.

2. El acuerdo de iniciación se comunicará al instructor y se notificará al inculcado y demás interesados, indicándoles que tienen un plazo de quince días para aportar cuantas alegaciones, documentos o informaciones estimen convenientes y para solicitar la apertura de un periodo probatorio y proponer los medios de prueba que consideren adecuados. Al acuerdo de iniciación se acompañarán la solicitud de apertura del procedimiento, la denuncia o la petición razonada, así como los documentos y pruebas que a éstas se hayan adjuntado o haya tenido en cuenta el órgano titular de la competencia sancionadora para abrir el procedimiento.

**Artículo trigésimo primero.-** Adición de un nuevo artículo 36 bis en la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se introduce un nuevo artículo 36 bis en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el siguiente tenor:

“Artículo 36 bis.- Actos de instrucción

1. Los actos de instrucción necesarios para la determinación, conocimiento y comprobación de los hechos en virtud de los cuales deba pronunciarse la resolución, se realizarán de oficio y a través de medios electrónicos, por el órgano que tramite el procedimiento, sin perjuicio del derecho de los interesados a proponer aquellas actuaciones que requieran su intervención o constituyan trámites legal o reglamentariamente establecidos.

2. Las aplicaciones y sistemas de información utilizados para la instrucción de los procedimientos deberán garantizar el control de los tiempos y plazos, la identificación de los órganos responsables y la tramitación ordenada de los



3. *Interesdunek parte hartu behar duten instrukzio-egintzak haiei komenigarrien zaien moduan egin behar dira, eta haien lanarekin edo betebeharrak profesionalekin ahal den neurrian bateragarri izateko moduan.*

4. *Beti ere, instrukzio-organoak behar diren neurriak hartuko dituzte prozeduran osotara errespetatu daitezkeen prozedurako interesdunen kontraesan- eta berdintasun-printzipioak.*

**Hogeita hamabigarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legeari 36 ter artikulua berria gehitzea.

36 ter artikulua berri bat gehitzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeari. Honela dio:

*“36 ter artikulua.- Aurretiatzeko alegazioak eta prozedurari buruzkoak.*

1. *Interesdunek aukera izango dute prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldiaren izapidea egin baino lehen, alegazioak egiteko eta dokumentuak edo bestelako irizpen-elementuak aurkezteko.*

*Horiek guztiak kontuan hartuko ditu organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean.*

2. *Interesdunek prozeduraren edozein urratsetan alega ditzakete izapidetze-akatsak, eta, bereziki, haien ondorioz prozedura gelditzea, nahitaezko jarritako epeak ez betetzea edo gaiari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik konpon daitezkeen izapideak ez egitea dakartenak. Alegazio horiek diziplina-erantzukizuna galdatzea ekar dezakete, horretarako arrazoirik badago.”*

**Hogeita hamahirugarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 37. (froga) atalaren erredakzio berria.

Erredakzio berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 37. atalari, eta honela idatzita geratzen da:

*expedientes, así como facilitar la simplificación y la publicidad de los procedimientos.*

3. *Los actos de instrucción que requieran la intervención de los interesados habrán de practicarse en la forma que resulte más conveniente para ellos y sea compatible, en la medida de lo posible, con sus obligaciones laborales o profesionales.*

4. *En cualquier caso, el órgano instructor adoptará las medidas necesarias para lograr el pleno respeto a los principios de contradicción y de igualdad de los interesados en el procedimiento.”*

**Artículo trigésimo segundo.-** Adición de un nuevo artículo 36 ter en la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se introduce un nuevo artículo 36 ter en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el siguiente tenor:

*“Artículo 36 ter.- Alegaciones previas y sobre procedimiento.*

1. *Los interesados podrán, en cualquier momento del procedimiento anterior al trámite de audiencia, aducir alegaciones y aportar documentos u otros elementos de juicio. Unos y otros serán tenidos en cuenta por el órgano competente al redactar la correspondiente propuesta de resolución.*

2. *En todo momento podrán los interesados alegar los defectos de tramitación y, en especial, los que supongan paralización, infracción de los plazos preceptivamente señalados o la omisión de trámites que pueden ser subsanados antes de la resolución definitiva del asunto. Dichas alegaciones podrán dar lugar, si hubiere razones para ello, a la exigencia de la correspondiente responsabilidad disciplinaria.”*

**Artículo trigésimo tercero.-** Nueva redacción del artículo 37 (prueba) de la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se da nueva redacción al artículo 37 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado con el siguiente



“37. artikulua. Froga.

1. Frogaldia irekiko da honako kasu hauetan:

a) Aurreko artikuluan ezarritako alegazioen izapidean interesdunetako edozeinek eskatzen duenean, horretarako frogabide zehatzak proposatuta, eta, betiere frogabide horietakoren bat bidezko jotzen duenean instruktoreak.

Instruktoreak arrazoitu egingo ditu frogaldia irekitzeko eskaera ez onartzeko eta froga jakinak atzera botatzeko hartzen dituen erabakiak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 77 eta 53.2.b) artikulua edo gerora hori ordeztuko duen araua aplikatuz.

b) Interesdunek eskaerarik egin ez arren, instruktoreak ezinbestekotzat jotzen duenean gertatutakoak argitzeko eta erantzuleak zehazteko. Zehazki, instruktoreak frogaldi bat irekitzea erabakiko du, Administrazioak interesdunek alegatutako egitateak egiazkotzat jotzen ez dituen arren edo prozeduraren izaerak hala eskatzen duenean.

Kasu horretan, instruktoreak bost eguneko epea emango die interesdunei bidezkotzat jotzen dituzten frogabideak proposa ditzaten.

2. Frogaldiak hogeita hamar egun balioduneko iraupena izango du.

3. Frogen praktikarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 78. artikuluan edo gerora hori ordeztuko duen arauan ezarritakoa bete beharko da.”

**Hogeita hamalagarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 38. (ebazpen-proposamena) atalaren erredakzio berria.

Erredakzio berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 38. atalari, eta honela idatzita geratzen da:

“38. artikulua.- Proposamenaren zirriborroa eta ebazpen-proposamena.

tenor:

“Artículo 37.- Prueba.

1. Se abrirá un periodo probatorio en los siguientes supuestos:

a) Cuando, en el trámite de alegaciones establecido en el artículo precedente, lo solicite cualquiera de los interesados con proposición de medios de prueba concretos, siempre que alguno de éstos sea considerado pertinente por el instructor. El instructor motivará sus decisiones de inadmisión de la solicitud de apertura de periodo probatorio y de rechazo de pruebas concretas, en aplicación de los artículos 77 y 53.2.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la norma que en el futuro lo sustituya.

b) Cuando, en ausencia de solicitud de parte interesada, el instructor lo considere necesario para el esclarecimiento de los hechos y determinación de los responsables. En particular, el instructor acordará la apertura de un período de prueba cuando la Administración no tenga por ciertos los hechos alegados por los interesados o la naturaleza del procedimiento lo exija. En este caso, el instructor dará un plazo de cinco días a los interesados para que propongan los medios de prueba que estimen oportunos.

2. El periodo probatorio durará treinta días hábiles.

3. La práctica de las pruebas se realizará de conformidad con lo establecido en el artículo 78 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la norma que en el futuro lo sustituya.”

**Artículo trigésimo cuarto.-** Nueva redacción del artículo 38 (propuesta de resolución) de la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se da nueva redacción al artículo 38 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado con el siguiente tenor:

“Artículo 38.- Borrador de propuesta y propuesta de resolución.



Frogaldia amaitzean (halakorik bada), instruktoreak proposamen-zirriborro bat egingo du, honako hauek jasoko dituena:

1. Arau-haustea eta erantzukizuna daudela irizten badio:

a) Frogatutzat jotzen dituen egitateak eta kontsiderazio horren oinarri den frogaren balorazioa.

b) Erantzuletzat jotzen dituen pertsonak, manuak eta kontsiderazioaren oinarri den frogaren balorazioa.

c) Arau-haustea tipifikatzeko zein manutan oinarritzen diren egitateak, eta horiek arau-haustetzat jotzeko arrazoiak.

d) Egoki iritzi dien zehapenak eta ondorio gehigarriak, zein manutan oinarritzen diren, horretarako kontuan hartu dituen inguruabarrak, kontsiderazio horren oinarri diren manuak eta frogaren balorazioa eta, hala egokituz gero, baita zehapenaren betearazpena geldiarazteko, atalka betearazteko edo aldatzeko proposamena eta proposamen horren arrazoiak ere.

e) Arau-haustea lehen zegoen egoera zertan aldatu duen eta eragin dituen kalte-galerak (frogatutzat jotzen dituenak), kontsiderazio horietarako arrazoiak, proposatzen diren erreparazioak edo kalte-ordainak eta proposamen horien arrazoiak.

2. Arau-hausterik eta erantzukizunik ez dagoela irizten badio, honako hauek jasoko dira beti:

a) Prozedurari amaiera emateko ebazpena, agerian badago frogatutako egitateak ez direla arau-hauste administratibo edo arau-haustea preskribatuta dagoela. Kontrako kasuan, jaso behar da, batetik, deklarazio formal eta arrazoitu bat, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89.1 artikuluan aurreikusten den ahalmena erabiltzeari uko egiten zaiola adierazteko, eta, bestetik, izapideekin jarraitzeko premia, hurrengo artikuluan aipatzen den entzunaldiaren izapidea eginda edo egin gabe.

b) Estimazio hori froga-balorazio baten edo apreziazio-juridiko baten ondorio den, eta bata zein bestea oinarritzeko arrazonamendua.

c) Absoluzio-proposamena.”

Concluido, en su caso, el periodo probatorio, el instructor formulará un borrador de propuesta, el cual deberá contener:

1. Si estima que existe infracción y responsabilidad:

a) Los hechos que considere probados y la valoración de la prueba en que se funde tal consideración.

b) Las personas que considere responsables, los preceptos y la valoración de la prueba en que tal consideración se funde.

c) Los preceptos tipificadores de infracciones en que considere subsumidos los hechos y las razones de tal consideración.

d) Las sanciones y consecuencias accesorias que estime procedentes, los preceptos en que se determinen, las circunstancias que a tal efecto haya considerado, los preceptos y valoración probatoria en que se funde tal consideración, así como, en su caso, la proposición de suspensión de la ejecución de la sanción de ejecución fraccionada o de su modificación, y las razones de tal proposición.

e) La alteración de la situación precedente que considere ocasionada por la infracción y los daños y perjuicios derivados de la misma que considere acreditados, las razones de tales consideraciones, las actividades de reparación o indemnizaciones que se propongan y las razones de esta proposición.

2. Si estima que no existe infracción o responsabilidad, contendrá, en todo caso:

a) La resolución de finalización del procedimiento cuando sea manifiesto que los hechos probados no constituyen infracción administrativa o que la infracción ha prescrito. En caso contrario, contendrá la declaración formal y motivada de la renuncia a usar la facultad prevista en el artículo 89.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la necesidad de continuar la tramitación, con o sin el trámite de audiencia al que se refiere el artículo siguiente.

b) La determinación de si tal estimación se debe a una valoración probatoria o a una apreciación jurídica y el razonamiento que funda una u otra.

c) La propuesta de absolució.”



**Hogeita hamabosgarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 39. (entzunaldia interesatuari) atalaren erredakzio berria.

Erredakzio berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 39. atalari, eta honela idatzita geratzen da:

*“39. artikulua.- Entzunaldia interesdunari.*

*1. Proposamen-zirriborroa jakinaraziko zaie interesdunei, eta aditzera emango zaie hamabost eguneko epea dutela alegazioak egiteko eta egoki irizitako dokumentuak eta justifikazioak aurkezteko.*

*Jakinarazpen horretan, halaber, aditzera emango zaie interesdunei epe horretan espedientea agerian jarriko dela, beren kabuz edo ordezkarien bitartez kontsultatu eta bertako dokumentuen fotokopiak egin ahal izateko. Horretarako, kontuan izango dira gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko legeria aplikagarrian egon daitezkeen mugak.*

*2. Aholkularitza juridikorako eskumena duen organoari txostena eskatu baino lehen emango zaie entzunaldia interesdunei, edo, hurrengoetatik edozein prozeduraren parte denean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren edo lurralde historikoetako organo aholku-emaile baliokidearen irizpena eskatu baino lehen.*

*3. Epea igaro aurretik interesdunek adierazten badute ez dutela alegaziorik egingo ez beste dokumentu edo justifikaziorik aurkeztuko, izapidea egintzat joko da.*

*4. Entzunaldiaren izapidea egin gabe utz daiteke prozeduran ez bada azaltzen eta ebazpenean ez bada kontuan hartu interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik.*

*5. Entzunaldiaren izapidea amaitzen denean, instruktoreak zirriborroa ebazpen-proposamen bihurtuko du, eta berehala bidaliko dio prozedura ebazteko eskumena duen organoari, espedienteko dokumentu, alegazio eta informazioekin batera.”*

**Artículo trigésimo quinto.-** Nueva redacción del artículo 39 (audiencia al interesado) de la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se da nueva redacción al artículo 39 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado con el siguiente tenor:

*“Artículo 39.- Audiencia al interesado.*

*1. El borrador de propuesta se notificará a los interesados, indicándoles que disponen de un plazo de quince días para formular alegaciones y presentar los documentos y justificaciones que estimen pertinentes. En tal notificación se comunicará a los interesados que durante dicho plazo se les pondrá de manifiesto el expediente, a fin de que puedan consultarlo por sí mismos o a través de representantes y obtener copias de los documentos que obren en el mismo. A estos efectos se tendrán en cuenta las limitaciones previstas en su caso en la legislación de transparencia y acceso a la información pública que resulte aplicable.*

*2. La audiencia a los interesados será anterior a la solicitud del informe del órgano competente para el asesoramiento jurídico o a la solicitud del Dictamen a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi u órgano consultivo equivalente de los Territorios Históricos, en el caso que cualquiera de ellos formaran parte del procedimiento.*

*3. Si antes del vencimiento del plazo los interesados manifiestan su decisión de no efectuar alegaciones ni aportar nuevos documentos o justificaciones, se tendrá por realizado el trámite.*

*4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.*

*5. Concluido el trámite de audiencia, el instructor elevará el borrador a propuesta de resolución y cursará inmediatamente la misma al órgano competente para resolver el procedimiento, junto con los documentos, alegaciones e informaciones que obren en el expediente.”*





**Hogeita hamaseigarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 40. (epeak murriztea eta luzatzea) atalaren erredakzio berria.

Erredakzio berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 40. atalari, eta honela idatzita geratzen da:

*“40. artikulua. Epeak murriztea eta luzatzea.*

*1. Instruktopeak, arrazoiak emanaz, eta aldean kontrako jarrerarik egon ezean, frogaldiaren iraupena murriztu ahal izango du, egin beharreko frogen kopuruaren eta izaeraren arabera, baina epe hori, gutxienez, hamar eguneko izango da. Halaber, arrazoituz gero, lege honetan alegazio-izapideak egiteko ezarritako epeak murriztz ditzake, kasu honetan ere, gutxienez, hamar egunera, alderdi hauek kontuan hartuta: egitateen astuntasun txikia, inplikaturako gai juridikoen kopurua eta konplexutasun eskasa, eta instruktopeak izapideak bideratzeko interesdunen esku jarri dituen dokumentuen eta frogen kopurua eta konplexutasuna.*

*2. Instruktopeak frogaldiaren epea luzatu ahal izango du. Luzapenak arrazoitua izan beharko du, behin bakarrik egin ahal izango da, eta, gehienez ere, beste 10 egun luzatu ahal izango da. Luzapena beharrezkoa denean baino ez da egingo, hots, egin beharreko frogen kopurua eta izaera, egoera faktikoen eta aztertutako gai juridikoen konplexutasuna edo bestelako arrazoi garrantzitsuak direla-eta beharrezkoa denean, egitateak eta erantzukizunak behar bezala zehazteko eta inputatuen defentsa eraginkorra bermatzeko.*

*Lege honetako 48. artikuluan ezarritako sei hilabeteko epeak ez du aurrera egingo luzapenak irauten duen bitartean.”*

**Hogeita hamazazpigarren artikulua.-** Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 42. (ekintza osagarriak) atalaren erredakzio berria.

Erredakzio berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen

**Artículo trigésimo sexto.-** Nueva redacción del artículo 40 (reducción y prórroga de plazos) de la Ley de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se da nueva redacción al artículo 40 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado con el siguiente tenor:

*“Artículo 40.- Reducción y prórroga de plazos.*

